

EZ DADIN BIZITZA ETEN

Miren Aranguren,
Monika Mendiberri,
Ainara Santamaria

2022
URRIA

EZ DADIN
BIZITZA
ETEN
MIREN ARANGUREN
MONIKA MENDIBERRI
AINARA SANTAMARIA



Zaintza lanetan inplikaturik dauden norbanakoei entzunda Emagin Elkartearen egindako lanetik abiatuta, azken urteotan mugimendu feministaren aldarrien erdigunean egon den gaiaz hausnartu dute hiru autoreek. Betiere, askotariko faktoreak kontuan hartuz eta bi ardatz hauen arabera: ikuspegi feminista eta ezagutza kokatua. Izan ere, zaintzaren inguruan sortzen den bereizkeriatik eta gorputzetik ez bada, kamutsa izanen da hartaz esaten dena. Egungo ereduak dituen mugak eta geruzak agertzean eta haren konplexutasuna ulertzean, lanen banaketa desorekatua gainditu eta bizitza erdigunean kokatuko duen gizarte antolaketa bat osatzeko bidean has gaitzke, ez dadin inoren bizitza eten. Alta, helburu horrek errotiko aldaketak egitea eskatzen du, gure mundu ikuskera beste era batera definitzea. Horretarako, ezinbestekoa izanen da gaur garena baino zaurgarriago, elkar-mendekoago eta eko-mendekoagoak agertzea. Iratzar fundazioak eta Txalapartak elkarlanean argitaratzen duten Iparrorratza bildumaren 8. alea da hau.

SAIAKERA KOADERNOA

Iparrorratza saila 8

ISBN: 978-84-19319-77-7
ORRIALDEAK: 104
FORMATUA: 12 x 19
PREZIOA: 12,00 €

SOZIOLOGIA

ZAINITZA

POLITIKA

- Autoreak Emagin Elkarteko kideak dira, eta bertan egindako lanean oinarritu dira, gizarte komunitatean sortzen den ezagutza ez baita nolanhikoa.
- Gaur egungo zaintza eredu eta erregimenaz egin dute gogoeta, hain zuzen azken urteotan mugimendu feministaren aldarrien erdigunean dagoen gaiaz.
- Gorputz jakin batzuen bizitza eten ez dadin, ereduak aldatu beharra dago: bizitza ez bada zaintzen, are gehiago prekarizatu egiten baita, hondatu, eten.

MONIKA MENDIBERRI
APEZETXEA

(Hernani, 1988) Emagin Elkartearen ikertzaile gisa ari da 2016. urteaz geroztik. Nagusiki indarkeria matxisten inguruan aztertzen jardun du, eta esku hartze komunitarioan, eta azken garaian zaintzen lanen antolaketaren inguruko diagnostiko eta ekintza planak garatzen dabil.

MIREN ARANGUREN ETXARTE

(Arre, 1981) Emagin Elkarteko kide da hastapenetik. Askotariko lanetan jardun arren, azken urteotan bereziki zaintzaileen egoeraren gainean ikertzen dihardu, tokiko politika publikoak aldatzeko esku hartzeak sustatzeko. Euskal Herriko Bilgune Feministako kide ere bada.

AINARA SANTAMARIA
BARINAGARREMENTERIA

(Berriatua, 1988) Lantaldean parte hartuz ekin zion bere ibilbideari Emagin Elkartearen, 2016an, eta azken urteetan ikertzaile gisa jardun du. Askotariko gaiak jorratu ditu baina, batez ere, elkartegintza eta udalerrietan genero errealitateak ezagutu eta berau feministatik eraldatzeko lanetan aritu da.

BILDUMA
HONETAN

9 788419 319777

txalaparta

Tfno. 948 703 934
info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus

